

Ageriko bilkura

Foruan, 2009ko urriaren 31n

Gaur, urriak 31, egin da Joan Mari Torrealdai Nabea euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Foruan, Frantziskotarren elizan, goizeko 11:00etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Joseba Andoni Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Aurelia Arkotxa, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu, Patxi Salaberri, Ibon Sarasola eta Patxi Zabaletak.
- Ohorezko euskaltzainak: Joseba Intxausti, Jose Antonio Retolaza eta Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi du Xabier Gereñok.
- Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Joseba Agirreazkuenaga, Dorleta Alberdi, Xabier Artola, Jon Aurre, Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Gidor Bilbao, Andoni Egaña, Xabier Erdozia, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Jon Kortazar, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Miriam Urkia eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dute: Kepa Altonaga, Joxe Azurmendi, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Makatzaga, Xabier Mendiguren, Pello Esnal, Iñaki Irabalde eta Paskual Rekaldek.

- Batzordekideak: Erramun Osa.
- Egitasmoetako teknikariak: Gorka Intxaurbe eta Amaia Jauregizar.
- Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Amaia Okariz, Josune Olabarria eta Resu Orbe.

Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du. Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du.

Igor Duñabeitia Alakano Foruko alkatearen ongi etorriak eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurrak hasiera eman diote gaurko ekitaldiari.

Ondoren, Miren Azkarate eta Joseba Lakarra euskaltzainek lagunduta, batzar tokira sartu da Joan Mari Torrealdai «Bibliografiatik bibliotekara. Esperantzari leihoa» izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzera.

Joan Mari Torrealdai: «Bibliografiatik bibliotekara. Esperantzari leihoa»

Euskal historiografian gutxi ikertu den ekintza garrantzitsua aztertu du Torrealdai: euskal bibliografia eta biblioteka sortzeko izan diren asmo eta saioak. Aro hauetan banatu du gaiaren historia: XIX. mendea, XX. mendearen hasierako Eusko Pizkundea, frankismoa eta Autonomia garaia. Itxaropentsu agertu da hizlaria: Euskal Bibliografia eta Euskal Bibliotekaren lehen ahalegin eraginkorren mendeurrenaren atarian gaudela dio, Quadra Salcedo edo Odon Apraiz bibliografia lanetan hasi zireneko mendeurrena, 1914-15ean hasi zen eta. Mendeurrenaren abaguneaz baliatuz, bi amets hauek kaleratu ditu Torrealdai: *Euskararen bibliografia* biltzea eta *Euskal intelligentsia*-ren inbentarioa egitea.

Jose Antonio Arana Martija: «Alexandriatik digitalizaziora»

Joan Mari Torrealdairen biografia eginez hasi da Arana Martija euskaltzaina. Argitaratu dituen liburuen zerrenda egin ondoren XX. Mendeko euskal liburuen *Katalogoa* azpimarratu du, Torrealdai bibliografian egin duen lan bikaina. Ondoren, historian zehar idazkerak eta inprimaketak izan dituzten adierazpide eta modu ezberdinen berri eman du: Sumerian sortu zen zibilizazioa, Txina eta Japoniako

idazkerak, Alexandriako Biblioteka, Fenizioek asmatu zuten alfabetoa, Gutenbergen inprimatze-sistema, idazteko erabili diren luma eta bolaluma edo boligrafoa, gaur eguneko digitalizaziora iritsiz. Joan Mari Torrealdaik euskararen alde egin duen lan oparoa azaldu ondoren, amaitzerakoan, *Egunkaria*-ren itsieraren ondorengo epaiketak sortu duen samina deitoratu du Jose Antonio Arana Martijak.

Ondoren, Joan Mari Torrealdaik, Barne Erregelen 64.8. atalean esaten dena betez, «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela» agindu du. Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duten diploma eta domina eman dizkio Joan Mari Torrealdairi.

Ekitaldi akademikoa bukatzean opariak eman dizkiote Joan Mari Torrealdairi Igor Duñabeitia alkateak, *Urdaibai* Dantza Taldeak, Usurbilko lagunek eta Torreal-dai-Nabea familiak.

Ekitaldia eguerdiko 13:00etan bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria